



Zebarri

ETXEBARRIKO EUSKALTEGIKO IKASLEEK EGINA
2008ko UDA

EGA



VAP



HEZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBAK (2004/1)
ESKABIDE-ORRIA
BAS DE ACREDITACIÓN DE PERFILES LINGÜÍSTICOS
SOLICITUD

TITULUEN
HOMOLOGAZIOA
NOLA GERATU DA DENA?

Ale honetan:

Euskaltegiaren II. Jaia
Marilyn Monroe
Errezetak ..eta abar

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBU



USKARAREN GAITASUN-AGIRIA

etxebarriko
EUSKALTEGIA



ULIBARRI
EUSKALTEGIA

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saria
Departamento de Cultura





euskarazko tituluak, behingoz homologatuta

Euskara

ikasten ari garenontzat oso garrantzitsua den hitzarmen bat lortu da. Hau da, bi urteotan egindako lanari esker, erakundeek ematen dituzten egiaztagiri guztiak bateratzen dituen homologazio dekretua.

Euskarazko egiaztagiri horiek guztiak bateratzeak abantaila asko ekarriko ditu; bai euskara tituluren bat atera dutenentzat, bai orain ateratzen ari direnentzat.

Harrigarria zen HABEk emandako euskara gaitasun egiaztagirik administrazio publikoetarako balio ofizialik ez izatea, nahiz eta HABE helduen euskalduntzeaz eta alfabetatzeaz arduratu.

Baina aurkeztu berri den dekretuari esker HABEk ematen dituen lau mailetarako agiriekin balio osoa izango dute.

Neurri horrek atzeraeragina du eta ez da edonola egin, baizik eta Europako irizpideei jarraituz.

Horretarako adituen talde bat osatu da eta egin duten prozedura Europako Kontseiluak gomendatzen duena da.

Horren hariari jarraituz, egiaztapen sistema bakoitzeko dokumentu eta material asko aztertu dituzte; hala nola, azterketen diseinua eta deskribapen orokorra, probak egiteko eta kudeatzeko sistema, zuzenketa eta puntuazioa, datuen analisia eta ondoren, berrikusteko prozedura ikertu dute 45 parametroren bitartez.

Azterlan horren barruan, egiaztapen sistema bakoitzeko azterketen lagin errealak baloratu dituzte, Europako Markoarekin alderatuta.

Lan hori egiten 30 epailek lagundu dute eta guztira 125 azterketa-lagin erreal aztertu eta alderatu dituzte. Horrela, emaitzak Europako Markoarekin erkatu dituzte.



euskarazko tituluak, behingoz homologatuta

Euskara

egiaztagiri batzuek ez dute baliokidetza lortu; hala nola, Hezkuntza Sailekoak, baina zaizkien eskakizunak betez gero, baliokidetza sisteman sartuko dira.

Lorpen horrekin gauzak erraztu egin dira herritarrentzat baita bitxiak diren egoerak ekidin ere; hain zuzen ere, euskarazko agiri bat izanik maila bereko beste bat egitera behartuta egotea edo goi-mailako euskara egiaztagiri bat izanik maila baxuagoko beste bat egitera behartuta egotea.

Horrela, gaurtik aurrera nahikoa dugu edozein agiri lortu erakunde edo administrazio publikoetako eskakizunak betetzeko, beharrezkoak diren baliokidetzak posibleak dira eta.



Hauxe da baliokidetzen koadroa, Europako Markoko beste hizkuntzen parametroen arabera:

Europako Erreferentzia Markoa	IVAP	HABE	OSAKIDETZA	ERTZAINZA	HEZKUNTZA
B1	1. HE	1. maila	1. HE		
B2	2. HE	2. maila	2. HE	1. HE	
C1	3. HE	3. maila	3. HE	2. HE	EGA
C2	4. HE	4. maila	4. HE		



etxebarrin uholdeak, hogeita bost urte geroago

Pasa den maiatzaren hogeita hamaikako gauean abisatu gabe etorri zitzaigun euria. Biharamunean urak inguratuta esnatu ginen; garajeak urez bete ziren, Plentziarako metroaren zerbitzua moztu behar izan zuten, horma bat erori zen eta bi auto zapaldu zituen, San Antonioko urtegiak gainezka egin zuen eta errepede nagusia moztu behar izan zuten.



Bizkaiko herri askotan Etxebarrin izan genuen egoera baino txarragoa izan zuten, batez ere Getxon. Denoi burura etorri zitzaizkigun duela 25 urteko uholdeak. 1983ko abuztuaren 26koak, haiek bai uholde larriak!!

Ostirala zen, beti gertatu behar asteburu batean??!! Bi edo hiru egun eman zituen jarraian euria botatzen eta Nerbioi eta Ibaizabal ibaiak, aldi berean, gainezka egin zuten eta elkartu ziren Etxebarri erdian. Gainera, itsasgora etorri zen. Dena oso azkar gertatu zen, ordu pare batean.


Kalte handiak izan ziren bai Etxebarrin, bai Bilbon eta ibaiaren ondoan dauden herri askotan ere. Argirik gabe eta edateko moduko urik gabe egon zen Etxebarri hainbat egunetan.

Esan bezala, Etxebarriz gain, hainbat herri pairatu zituzten uholdeen ondorioak. Adibidez, Nerbioi ibaiaren

ibilbidean dauden Laudio, Ugao, Arrigorriaga, Basauri eta, jakina, Bilbo. Bizkaiko beste gun batzuetan ere, Bermeo, Bakio...

Adibidez, Bilbon 500 mm erori ziren egun bakar batean. Ibaiak ezin zuten jasan horrenbeste ur eta urak bere bide naturalari jarraitu zion.

Oso garrantzitsua izan zen jendearen elkartasuna. Janari, edaria, jantziak eta abar banatzen ari zen jende ugari. Adibidez Fuenlabradako hainbat biztanle etorri zen Etxebarriraino laguntzeko asmoz. Eskerrak emateko, Etxebarriko Udalak kale bati Fuenlabrada izena ematea erabaki zuen.



Hala ere, 1983ko uholde handia eta 2008ko uholde txikia ez dira Etxebarri izan dituen uholde bakarrak. Ibaiaren ondoan bizi garenez arrisku hori daukagu.

Hemen dagoen hurrengo argazkiak erakusten du 1953. urteko irudi bat. Ikus dezakegu noraino heldu zen ura:





zer deritzozu kafe antzokia zabaltzeari?



❖ Nire ustez jendea gehiegi kexatzen da. Leku batzuetan badago Social Antzokia eta ez dago arazorik. Gainera, Etxebarrin ez daukagu ondo pasatzeko lekurik eta beste herrietara joan behar dugu.

(etxeKoandrea. 41 urte)

❖ Ni guztiz ados nago. Nire ustez tabernek eta dendek giro ona ematen diote Etxebarriri. Inportantea da gazteek ondo pasatzea eta ahal bada herritik irten gabe.

(etxeKoandrea. 34 urte)

❖ Nik uste dut oso ideia ona dela. Etxebarrin ez daukagu lokal asko dibertitzeko. Ematen du gauza politikoak direla baina niri noizean behin nire lagunekin kopak hartzea gustatzen zait.

(langilea. 39 urte)

❖ Uste dut Antzokia zabaldu baino lehen auzokideek ezin dutela jakin zer gertatuko zaien. Etxebarrin giroa behar dugu. Herrikook ez dugu nahi jendea bakarrik lo egitera etortzea.

(etxeKoandrea. 59 urte)

❖ Ni ados nago. Adin guztietako jendeak disfrutatzeke eta ondo pasatzeko leku bat zabaltzea ideia ona da.

(jubilatua. 72 urte)

❖ Ez nago batere ados. Ez litzaidake gustatuko nire etxe azpian terraza bat gauez zabalik egotea.


(dendaria. 45 urte)

❖ Ondo iruditzen zait zerén eta horrela asteburuetan ez baitugu herritik atera behar.

(iKaslea. 22 urte)



Euskal Herrian dauden Kafe Antzokietako baten argazkia



marilyn monroe biografia

Norma Jean Mortenson 1926ko ekainaren 1ean jaio zen. Bere amak senargai asko eduki zuen eta horregatik ez zuen inoiz jakin nor izan zen bere aita. Baina hori ez zitzaion Normari inporta, hari bere aita Clark Gable zela esatea gustatzen baitzitzaion.

Hautzaroan ama zoratu egin zen eta ospitale batera joan behar izan zuen. Gurasorik ez zeukala, etxez etxe ibili zen eta urte gogorak izan ziren etxe batzuetan neskame aritu zen eta.

16 urterekin ezkondu zen lehenengo aldiz eta bi urtez egon zen bere senarrarekin. Banandu ondoren, 19 urte zituela, Blue Brooks Model Agency-n lana aurkitu zuen eta itxura fisikoa aldatu zuen: argaldu zen, ilea urre kolorekoa bihurtu zuen eta bere ibilkera landu zuen. Garai horretan izena ere aldatu zuen eta Marilyn Monroe izan zen handik aurrera. Egun batean argazkilari batek egutegi baterako argazki batzuk egitea proposatu zion eta Marilynek baietz erantzun zion. Argazkietan Marilyn biluzik agertu zen eta horri esker fama handia lortu zuen.

50eko hamarkadan pelikula asko egin zituen. Filmak egiteaz gain, beste bi bider gehiago ezkontzeko denbora eduki zuen: Joe Dimagiorekin eta Arthur Millerekin, baina ez zuen zoriontasunik lortu. Beste alde batetik, Kennedy anaiekin harremana eduki zuen, baina jostailu sexualtzat hartu zuten eta nekatu ostean, bazterrean utzi zuten.

Bere heriotza misterioz beteta dago. Bakar-bakarrik hil omen zen, lagunei laguntza eskatzeko telefonoz deitu ostean. Badirudi lagunak ez ziotela kasurik egin. Pilula batzuk zeuzkan gorputzean eta oraindik ez dago argi suizidioa ala hilketa izan zen.



EUSKALTEGIAREN 2. JAIA

KRONIKA

Aurreko maiatzaren 29an Etxebarriko Euskaltegiko 2. jaia ospatu genuen Euskaltegiko irakasle eta ikasleok Bekosolo parkean.

Hasteko, ikasleen arteko lehiaketa abiatu zen, goizeko 10etan, euriak aukera eman zigunean. Talde urdinak irabazi zuen hainbat proba gainditu eta gero: Zuhaitzen izenak latinez jarri, pintxo bat asmatu, olerki bat egin, puxikak apurtu, liburu bat bilatu liburutegian....eta abar.

Horren ondoren Aritza Bergara etorri zen Euskal Musika Tresnei buruzko hitzaldi-tailerra egitera. Hainbat tresna erakutsi zituen: txalaparta, alboka, txistua, harrizko txalaparta, atalaba, panderoa.....



Eta gosea gainean geneukanean Euskaltegiko Jubilatuen taldea agertu zen, paella handi bat prestatzera, goxo goxoa, benetan.

Denon artean bazkaldu eta, ondoren, arratsaldeari aurre egiteko Aritzak tailerraren bigarren zatiari ekin zion, zati praktikoa.

Eta egun handi horri amaiera emateko Zorrotzako Txiri Txori taldea etorri zen berbena bat egitera arratsalde partean. Trena eta guzti ekarri zuten eta tren horretaz munduari bira egin zioten, munduko musika eta kultura ezagutarazteko.



DATORREN URTEAN.....ETORRI ETA IKUSIKO DUZU!!!



EUSKALTEGIKO IKASLEAK MUSEOAN

Apirilaren 29an Bilboko Berreginen Museora irteera bat egin genuen euskaltegiako ikasleok. Bisitak ordubete iraun zuen eta "Greziar Arteak" izan genuen ikusgai. Hona hemen museoaren historia eta jatorriaren azalpentxo bat:



Bilboko Artelan Berreginen Museoa egitearen ideia Manuel Ramirez Escuderoren eskutik etorri zen. Hain zuzen ere berak 1922. urtean Euskal Kultura Batzordeari mozio bat aurkeztu zion Bilbon era horretako museoa egin zedila proposatuz.

Patronatuaren lehen bilera 1927an egin zen.

Museorako arte lanak erosteari buruzko politikari dagokionean nondik nora jokatu zehazten zuten gidabideak izateak, José Ramón Mélidaren katalogoan oinarritutakoak, irizpide asko eta desberdinak izatea ekidin zuen eta lehentasuna eman zitzaizen eskulturari eta arkitekturari, artearen historian horiek baitira garrantzi handiena duten arloak.

Artearen Historiaren aldietako artelanen erreprodukzioak daude erakusgai, tamaina naturalean eginak. Kaldea, Asiria eta Egiptotik hasi eta Greziarekin jarraituz, Errenazimendura bitarteko Artearen maisulanen erreprodukzioak daude, besteak beste, Hammurabiren Kodea, Elche-ko Andrea, Diskoboloa, Praxitelesen Hermes, Samotraziako Garaipena, Miloko Venus, Cánovako Venus, Miguel Angelen esklabuak eta Moises, Juan de Padilla jaunaren hilobia, Partenongo erliebeak, Pergamoko Zeus jainkoaren aldarea, Duomoko "Cantoría" eta Lehoieme zauritua.

Edukiak

Museoan zera dago: eskaiolaz eginda dauden artearen historiako eskultura garrantzitsuenen hustuketak, bereziki greziako eta errenazimendu garaiko artearenak.

Argitalpenak

Museoaren gida eta planoa, materiale didaktikoa, gela bakoitzari buruzko orriak, kartelak eta bideoak.

Jarduerak

Marrazketa eta pintura ikastaroak eta tailerrak.



ANIMA ZAITEZTE
ETA BISITA
EZAZUE
!!EZ ZARETE
DAMUTUKO!!!



Zebarri



ume berezi batzuen oporraldia

Udan ikusten ditugu ume batzuk, bertakoak izan ez arren, geure umeekin jolastu eta harremanak egiten dituztenak. Nongoak dira bada? Saharakoak hain zuzen ere.

Hona hemen zenbait datu haien herrialdea bai eta kultura ere ezagutzeko asmoz:

- ❑ Mendebaldeko Sahara Espainiako kolonia bat zen XIX. urteaz geroztik.
- ❑ 1975. urtean Espainiako gobernuak erreferenduma egin nahi zuen sahararrek euren etorkizuna erabakitzeko Hala ere, azkenean, Mauritania eta Marokoren artean erabakitzeko esan zuen.
- ❑ Hortik aurrera gerra luze bat hasi zen. Mauritaniaren kontrakoa irabazi eta Marokoren kontrako galdu.
- ❑ Orain Marokok agintzen du eta horrek egin du sahararrek euren lurraldeetatik ihes egin behar izatea.
- ❑ Bi aukera omen dago: Saharako herriaren konpromiso demokratikoak betetzea ala gatazka luzaroan irauntzea.

Bertako ume batek berak kontatzen duena ekarriko dizuegu:

Gira 11 urteko neska sahararra da. Amgala jaio zen. Orain errefuxiatu eremuan bizi da. Bertako ikastetxe berean ikasten dute mutilek eta neskek. Gira eskolara joan baino laehan, goizeko bederatzieta gutxi gorabehera, bere anai-arreba txikientzako jantziak eta gosaria prestatu behar dituela azaldu du. Hark beti pentsatzen du ikasketa gehiago egiteko aukera izango duela. Algeriako unibertsitate batean egingo ditu bere ikasketak. Seguruenik, medikuntza eta irakaskuntza egingo ditu, errefuxiatu eremuetan beharrik handienak

horiexek baitira. Ikasketak amaitutakoan, berriro delako errefuxiatu eremura itzuliko dela esaten du.

1995. urtetik aurrera Mendebaldeko Saharako haurrak irtetzen hasi ziren "Oporrak bakean" programari esker. Gure Gira, hona etorri zen lehenengo aldian, 7 urte baino ez zituela kontatzen digu eta urtero etorriko dela hamabi urte bete arte.

Hemen gauza ugari egin dezake: hondartzara joan daiteke, arropa eros dezake, parketan jolas daiteke...Hamaika gauza...

Urtero 6.000 haur baino gehiago joaten da kanpora. Joaten diren lekuetan egiten dituzten harremanak positiboak dira oso bai haientzat bai eta bertako jendearentzat ere.





NOLA EGIN UME BAT HARTZEKO?

- ❑ Argi eduki behar duzu, nahiz eta oso esperientzia polita izan, arazo asko sor daitekeela.
- ❑ Jo ezazu Saharako lagunak elkartera informazio bila
- ❑ Inportatenteena da Saharako lagunak elkartera berak aholkatzea, horiek argibide osoa emango dizute-eta.
- ❑ Erraza da umeak hartzea. Izan ere, Udal batzuek dirulaguntza ematen dute; hala nola Etxebarriko udalak berak
- ❑ Elkartera joandakoan, haiek bere informazio osoa eman diezazukete, bai psikologoak baita bertan antolatzen dituzten hitzaldien bidez ere. Izan ahal dituzun zalantza guztiak, bertan argituko dizkizute.
- ❑ Hain garrantzitsua da umeak hartzea zein bere arazoei buruzko kontzientzia hartzea.


**SAHARAKO KULTURA EZAGUTU,
BERTARA JOAN GABE!!!**





CAMPU'S 08 TXEFE GUERRERO

UDALEKUAK ETXEBARRIN



Informazio gehiago nahi baduzue
deitu telefono honetara 944545548-649974309.

Kontatuko diguzu nola pasatu duzun aurtengo udalekuetan.

Aurten, lehenengo aldiz, haurrek Etxebarrin denbora libreaz gozatzeko aukera izando dute, Txefe Guerrerok udaletxearen laguntzaz antolatu dituen udalekuetan. Udaleku hauetara 4 eta 12 urte bitarteko haurrak etor daitezke. Ekainaren 23an hasiko dira eta uztailaren 25 era arte iraungo dute. Txandak astebetekoak izando dira, astelehenetik ostiralera, goizeko 9etatik arratsaldeko 6ak arte.

Eskaintzaren barruan hauek guztiak sartzen dira; hamaiketakoa, bazkaria, askaria, kirol arropa, kirol jarduerak eta ibilaldiak, lantegiak, euskara, ingelesa, mediku aseguruak. Etxebarriko J.M. Barandiaran ikastetxeak bere gelak eta jantokia utziko die euskara eta ingelesa emateko eta bazkaltzeko.

Seme- alabak badituzu eta uda honetan ez baduzu norekin utzi, aukera daukazu aurten txefe Guerreroren campusera eramateko. Etxeberritarrek 100 euro astea ordaindu beharko dute eta kanpotarrek 180 euro.

Futbolaz gain, beste kirol batzuk egin daitezke, adibidez, tenisa, boleibola, padela etab. Udaleku hauetan haurrek lagunak egingo dituzte eta gaitera primeran pasatuko dute kirola eginez eta leku desberdinak ezagutuz.

ANIMA ZAITEZTE!





ERREZETAK



Bakailaoa pil pil erara

Osagaiak:

Lau lagunentzat:

- 300 gramoko lau xerra bakailao.
- 0,4 graduko garraztasunadun litro erdi oliba olio.
- Gradu bateko litro erdi oliba olio birjin.
- 2 baratxuri ale.
- Pipermin bat.

Trikimailua:

Bakailaoa ondo sendotzeko gako tenperatura da. Tenperatura handian askoz zailagoa da hori lortzea, eta tenperatura txikian, berriz, errazagoa.

Aholkua:

Pil-pila teknikoki maionesaren antzekoa da, olio gehiegi botaz gero lodiegia aterako da, eta gutxiegi erabiliz gero, mehegia.

Nola egin:

1. Bakailaoaren gazi puntu egokia lortzea da, zalantzarik gabe, prestakuntzako pausorik zailena. Bakailaoa ondo gezatzeko, 15 graduko tenperaturan dagoen uretan garbitzea komeni da. Ura hotzago balego denbora gehiago beharko genuke; beroago egonez gero, berriz, bakailaoa hondatu egingo litzateke.
2. Kazola batean bi olio motak jarri baratxuria eta piperminarekin, eta ondoren sutan ipini baratxuria gorritzen hasi arte. Xigortzen hasitakoan olio sutik kendu.
3. Olio epela kazola batean jarri, eta bakailao xerrak gehitu azala gorantz dutela. Xerrok su txikian egosten utzi, laminak tonu garden batetik tonu mate batera igaro arte.
4. Kazola sutatik kendu eta bakailaoa bost minutuz jalkitzen utzi, eta ondoren bakailaoa atera eta kazola hotz batean ipini. Behin bakailaoa epelduta, epel-hotz antzean egongo den olio eginda dauden bakailao zatien gainetik bota behar da. Olio pixkanaka botatzea komeni da, kazola gora-behera mugituz saltsa egiten joan dadin.



ERREZETAK



Gisatutako idi buztana

Osagaiak:

Lau lagunentzat:

- Kilo t'erdi idi buztan.
- 3 tipula.
- 3 azenario.
- 200 gramo aza.
- Litro bat ardo txuri.
- 2 baratxuri ale.
- 4 tomate.
- 2 dezilitro oliba olio.
- Irina.

Trikimailua:

Buztana ondo eginda dagoen jakiteko, zatiak banan bana sastatzea komeni da. Izan ere, zati batzuk besteak baino gogorrago egon litezke.

Aholkua:

Gisatutako buztana egun batetik bestera galtzen ez den platera da, are gehiago, jalkitzeak mesede egiten dio.

Nola egin:

1. Idi buztana kartilagoarekin lotuta dagoen tokitik moztu behar da, bestela ezpalak atera litezke eta. Buztana gatzitu eta irinean pasa ondoren, oliodun kazola batean gorritzen utzi behar da.
2. Aza izan ezik, kazola horretan bertan barazkia xigortu. Aza su azkarrean xigortu behar da, eta bero dagoenean -baina egin gabea- buztana gehitu. Buztana gehitzerakoan garrantzitsua da zatiak elkarren ondoan ez pilatzeai.
3. Xerra finetan moztutako azarekin buztana zatiak estali, eta ardo txuria gainetik bota. Ondoren haragia hermetikoki gorde eta hiru orduz su motelean utzi. Denbora tarte hau igarotakoan, okela samur dagoen ikusi behar da.
4. Samur egonez gero, buztan zatiak kazolatik kendu, txikitu eta saltsa iragazi. Saltsa buztanaren gainetik bota kazola garbi batean, eta guztia egosi. Ondoren jalkitzen utzi behar da, eta hogeita minutu pasatu eta hozterakoan, sortu ahal izan den koipea ezabatu.



EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

3

AURREALDE, ATZEALDE

Era honetako lehen hitzak (*gain, goi, azpi, behe, barne, barru, barren, aurre, atze, aitzin, gibel, kanpo*) Axularrengan agertzen dira, *aitzin alde, gibel alde, gainalde eta barrenalde*, hain zuzen. Harrez

gero *aitzinalde* eta *gibelalde* aski ohikoak dira literatura tradizioan eta ildo beretik *aurrealde* (Lardizabal,

Soroa, D. Agirre...), *atzealde* (Iztueta, Lardizabal, Uriarte...), *azpialde* (Duvoisin, Txirrita...), *barnealde* (Iraizoz...), *barrenalde* (Pouvreau, Arrue...), *barrualde* (D. Agirre, Azkue...), *behealde* (Agirre Asteasukoa, Iztueta, Apaolaza...), *gainalde* (Mendiburu, Duvoisin...), *goialde* (Kardaberaz, Iztueta, Arrese Beitia...), *kanpoalde* (Duvoisin, Uriarte, J. Etxepare, Etxeita...) e.a.

Mende honen erdialdera edo, *k-dun* formak (*barrukalde, atzekalde...*) hasi ziren Hegoaldeko euskara idatzian agertzen, *barruko alde, atzeko alde* esapideen batze baten ondorioz. Joera hau asko hedatu da azken urteotan, nahiz eta tradiziozko formak ez diren desagertu, batez ere idazle ereduizkoen artetik.

Hortaz, Euskaltzaindiak gogorarazten du, euskara idatzian, *aurrekalde, atzekalde, barrukalde, gainekalde, azpikalde, goikalde, behekalde, kanpokalde* bezalako forma berri eta batasun hausleak ez direla egokiak euskara batuan, eta hau erabakitzen du:

Erabil daitezela, oraintsu arte egin den bezala, esapide osoak: *aurreko alde, atzeko alde, barruko alde, gaineko alde, azpiko alde, goiko alde, beheko alde, kanpoko alde* e.a., edota forma atzizkidun jatorrak: *aurrealde, atzealde, barrualde, gainalde, azpialde, goialde, behealde, kanpoalde* e.a.

Honek ez du esan nahi horretarako tradizio mintzatua dagoenean *aurreko alde, atzeko alde* formak *aurrekalde* eta *atekalde* ebakitzea gaitzesten denik.

Bibliografia: Orotariko Euskal Hiztegia, s.v. *aitzinalde, atzealde, aurrealde, azpialde, barnealde, barrenalde, barrualde, behealde*.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)



EUSKALTZAINDIA

UDA ERE EUSKARA IKASTEKO SASOIA DA

Estudia euskera en verano

Este verano puedes seguir
estudiando euskera en el
Euskaltegi de Etxebarri

Todos los niveles
EGA
Perfiles

SUBVENCIONADOS POR EL
AYUNTAMIENTO

MATRICÚLATE EN JUNIO

Aurten euskara ikasten jarraitu
ahal izango duzu Etxebarriko
Euskaltegian

Maila guztiak
EGA
Hizkuntza Eskakizunak

UDALETXEAK DIRUZ
LAGUNDUTA

MATRIKULAK EKAINEAN

Eta aurten... -BOGA autoprendizaje por ordenador
-EGA-koloniak

EGA ateratzeko kurtso bereziak, 16 urtetik gorakoentzat:
txangoak, museoak, erakusketak...aisialdia, eskolak...
euskara ikastea udan hain gogorra izan ez dadin.



*Cursos especiales para la preparación de EGA,
para mayores de 16 años: excursiones, museos,
exposiciones...actividades y clases... para que
estudiar euskera en verano sea aun más agradable.*



Bekosolo Parkea z/g (Etxe horia/Casa Amarilla)

Tel/Fax: 94 426 28 02

etxebarri@euskalnet.net



ULIBARRI
EUSKALTEGIA